

## **Bigarrena. Izena: Foru parlamentarien jardueri buruzko aitortpena**

- a) Oinarri juridikoa: DBEOren 6.1. a) artikulua: Interesdunak bere datu pertsonalak tratatzeko baimena eman du helburu zehatz bati edo gehiagori begira; eta DBEOren 6.1.e): Tratamendua beharrezkoa da interes publikoaren izenean edo tratamenduaren arduradunari esleitutako botere publikoen jardunean burututako eginkizun bat betetzeko; Foru parlamentarien jardueren aitortpena, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 1., 24. eta 26. artikulua betetzeko. 19/1986 Foru Legea, azaroaren 17koa, Nafarroako Parlamenturako hauteskundeak arautzen dituena. 5/1985 Lege Organikoa, ekainaren 19koa, Hauteskundearen Araubide Orokorri buruzkoa. Nafarroako Parlamentuko Mahaiaren erabakia, 1995eko ekainaren 1ekoa.
- b) Tratamenduaren xedeak: Foru parlamentarien jardueren aitortpena, Nafarroako Parlamentuaren Erregelamenduaren 1., 24. eta 26. artikulua betez. Aitortpen hori egitea baldintza bat da foru parlamentariaren izaera osoki eskuratzeko eta haren jarduerak izaera horrekin bateragarriak diren kontrolatzeko.
- c) Ukitutako pertsonak eta kolektiboak: Foru parlamentariak.
- d) Datu-kategoriak: Izen-deiturak, IFZ, data eta sinadura, bai eta jardueren aitortpena ere, zeinean honako hauek deskribatuko baitira:
- Jarduera eta kargu publikoak
  - Sektore publikoaren konturako diru-sarrerak
  - Jarduera pribatuak
  - Diru-sarrerak dituen beste edozein jarduera
  - Bateriaezina izan daitekeen beste edozein kargu edo jarduera
  - Datuen argibideak edo gehitzeak
- e) Hartzaile-kategoriak: Ez dago lagapenik
- f) Nazioarteko transferentzia: Ez dago halakorik aurreikusita.
- g) Bertan behera uzteko epea: Datuak gordeko dira Nafarroako Parlamentuko Artxiboaren antolamenduari eta funtzionamenduari buruzko Arauetan xedatutakoari jarraituz. Arau horiek 2000ko maiatzaren 15ean onetsi zituen Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, eta 2000ko ekainaren 8ko 48. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu ziren.
- h) Entitate arduraduna: Nafarroako Parlamentua. Nafarroako Parlamentuari norbere datuen eskurapena, zuzenketa, ezabaketa, eramangarritasuna, haien tratamenduaren murriztapena eta tratamendu horri aurka egitea eskatzeko eskubidea baliatu nahi izanez gero, bidezkoa denean, hori idatziz egin behar da, helbide honetara joz: Navas de Tolosa kalea, 1, 31002 Iruña. Bestela, posta elektronikoko honako helbide honetara: [dpd@parlamentodenavarra.es](mailto:dpd@parlamentodenavarra.es).